

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2021EKO MAIATZA

Euskal AEko industria-jarduera % 28,2 suspertu da 2021eko maiatzean

2021eko lehenengo bost hilabeteetako Industria Produktzioaren Indizearen aldakuntza metatua % 13,7 izan da


Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa % 28,2 handiagoa izan da 2021eko maiatzean, 2020ko hilabete berekoaren aldean. 2021eko lehenengo bost hilabeteetako balantzeak industria-jarduera % 13,7 igo dela erakusten du.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2021eko maiatza aurreko hilarekin alderatuta, ordea, Euskal AEko industria-produkzioa % 1,7 murriztu da.

Aldaketen larritasuna urte arteko terminoetan ulertze aldera, industria-jardueran izandako eragina aintzat hartu behar da, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko alarma-egoera 2020ko martxoaren 14an agindu eta hurrengo hilabeteetan.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2021eko maiatzeko indizearen bilakaera, 2020ko maiatzarekin alderatuta, positiboa izan da industria-sektore handi guztietan.

Hazkunderik handiena *Bitarteko ondasunek* izan dute (metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa), % 39,8.

Bestalde, *Ekipo-ondasunak* (motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialaren egitea eta aireontziak edo itsasontziak egitea barne) % 27,8 igo dira.

Era berean, *Kontsumo-ondasunek* urte arteko % 18,3ko igoera izan dute oro har; *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 67,5ekoa eduki dute, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 8,8koa. *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* epigrafean altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Azkenik, *Energia* (energia elektrikoaren hornidura eta petrolioaren fintzea barne) % 0,2 igo da 2021eko maiatzean, urte arteko terminoetan.

Hil arteko aldakuntza, 2021eko maiatza 2021eko apirilaren aldean, negatiboa izan da, ordea, industria-sektore handi guztietan. *Energia* % 10,5 txikiagoa izan da 2021eko maiatzean 2021eko apirilean baino. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 4,3 egin dute behera produkzioan, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 6,8ko jaitsieraren ondorioz, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorretan* % 4,7ko igoera izan baita. *Ekipo-ondasunak*, beste alde, % 4,1 jaitsi dira, eta *Bitarteko ondasunak* % 2,6.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021eko maiatza

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak	
	Mai2021 / Mai2020	A(Mai2021) / A(Mai2020)(*)	Mai2021 / Api2021	Api2021 / Mar2021
Indize orokorra				
Euskal AE	28,2	13,7	-1,7	3,2
Araba/Álava	26,2	15,9	-1,1	7,2
Bizkaia	25,8	9,5	-3,6	2,2
Gipuzkoa	31,7	16,9	-0,1	1,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	18,3	11,5	-4,3	3,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	67,5	39,9	4,7	5,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	8,8	5,7	-6,8	3,2
Ekipo-ondasunak	27,8	16,3	-4,1	4,5
Bitarteko ondasunak	39,8	18,2	-2,6	1,9
Energia	0,2	-7,1	-10,5	14,5

(*) 2021eko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Xehekiago, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2021eko maiatzean urte arteko susperraldi handiena izan dutenak izan dira *Kautxu eta plastikoa* (% 72,5eko hazkundera produkzioan), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 39,9koa) eta *Makineria eta ekipoa* (% 31,3koa). Aitzitik, urte arteko bilakaeran zeinu negatiboa izan duen sektore bakarra *Energia elektrikoa, gasa eta lurrunarena* izan da, % 3,9ko jaitsierarekin.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	39,9
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-3,9
09 - Kautxua eta plastikoak	72,5
13 - Makineria eta tresneria	31,3
14 - Garraio-materiala	23,0
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	12,9
12 - Material eta tresneria elektrikoa	25,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	10,3

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria Produkzioaren Indizearen maiatzeko urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan. Halatan, Gipuzkoan % 31,7ko igoera izan da, Araban industria-produkzioa % 26,2 handiagoa izan da 2021eko maiatzean 2020ko maiatzean baino, eta azkenik, Bizkaian, urte arteko aldakuntza % 25,8koa izan da.

2021eko lehenbiziko bost hilabeteetako metatuan, Gipuzkoan hazi da gehien (% 16,9), gero Araban (% 15,9) eta ondoren Bizkaian (% 9,5).

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#). ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, maiatzeko indizea laginaren % **94,24ko** estaldurarekin kalkulatu da –informazioa ekainean zehar jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62